


**ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA**

Gizarte Politiketako Sailburuordetza
Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES**

Viceconsejería de Políticas Sociales
Dirección de Política Familiar y Desarrollo
Comunitario



Eusko Jaurlaritzaren ustez, familiak gizarteko funtsezko erakundeak dira, gizarte-funtzio oso garrantzitsuak betetzen baitituzte. Horrez gainera, gizabanakoari gizartean eta komunitatean jarduten irakasterakoan familiak zeregin handia dauka.

Horrenbestez, funtsezkoa da erakundeek babesa eta laguntza ematea artatzeko, zaintzeko eta hazteko lan horretan.

Eusko Jaurlaritzak ondoren azalduko den araudia eta plangintza planifikatu eta abian jarri du, bere eskumenak garatzeko:

**ERREFERENTZIAZKO ARAUDI-ESPARRUA FAMILIA-POLITIKAN
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

13/2008 LEGEA, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa. (EHAA, 246. alea, 2008ko abenduaren 24koa).

255/2006 DEKRETUA, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena (EHAA, 245. alea, 2006ko abenduaren 27koa).

177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (EHAA, 129. alea, 2010eko uztailaren 7koa).

53/2012 DEKRETUA, apirilaren 17koa, Familien Euskal Kontseiluarena (EHAA, 90. alea, 2012ko maiatzaren 9a).

154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (EHAA, 152. alea, 2012ko abuztuaren 6koa)

PLANGINTZA-ESPARRUA

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde arteko I. Planak, Gobernu Kontseiluak 2001eko uztailaren 3ko bilkuran onartutakoak, "jaiotze-tasei nahiz familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeari buruzko politikei heltzeko behar gero eta nabarmenagoari eta sentituari" erantzun nahi zion.

Familiei Laguntzeko Erakunde arteko II. Plana (2006-2010), Gobernu Kontseiluak 2006ko urriaren 26ko bilkuran onartutakoak, I. Planean zehaztutako jarduketako ildoak finkatzea ekarri zuen berekin, bertan jasotako neurriak zabaltzea eta berri batzuk gehitzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana (2011-2015)

Gaur egun, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. PLANA (2011-2015) dago indarrean. Plan horrek 4 ildo estrategiko eta 169 ekimen ditu:

- **1. ILDO ESTRATEGIKOA:** Familiei laguntzeko eta haien autonomia ahalbidetzeko zerbitzu, neurri eta politikak indartzea.
- **2. ILDO ESTRATEGIKOA:** Familien eta haien ahalduntzea, gizarte-sentsibilizazioa eta prebentzioa bultzatzeko politika eta gizarte-ekintzen gizarte-balioa sustatu eta zabaltzea.
- **3. ILDO ESTRATEGIKOA:** Familiei laguntzeko eta gizartearen parte-hartzea garatzeko politiken sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa.
- **4. ILDO ESTRATEGIKOA:** Familiei laguntzeko politika eta neurrietako paradigma eta jardun-esparru berriak.

Egin beharreko ekintza guztiak aintzat hartuta, egiaztatu da lehentasuna eman behar zaiela **jarduketa-esparruei eta ekintza estrategikoei**. Horrenbestez, proposatu da Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana 2011/2015 berriz adieraztea, Familiaren Euskal Behatokiak hautematen dituen behar eta errealitate berrietara egokituz.

2013-2016 Legegintzaldirako esparruak eta ekintza estrategikoak lehenesteko prozesurako hiri irizpideri jarraitu zaie.

1. BULTZATU BEHARREKO **GAI/ESPARRU NAGUSIAK** HAUTATZEA:
 - Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea.
 - Enplegu-neurriak: sektore pribatua
 - Enplegu-neurriak: sektore publikoa
 - Neurri esperimentalak.
 - Gizarte-aitorpenerako neurriak
 - Gurasotasun positiboa
 - Belaunaldi arteko solidaritatea
 - Laguntza ekonomikoak
2. LEGEGINTZALDIRAKO **EKINTZA ESTRATEGIKOAK** HAUTATZEA:
Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko III. Planean sartutako **32 neurriekin bat datoz 16 ekintza estrategiko**.
Hautatzeko irizpideak:
 - Gure Zuzendaritza neurriaren sustatzaile gisa identifikatzen duten ekintzak.
 - Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ardurako ekintzak (horri esker, zehaztasunez kontrolatu eta egin daiteke).
3. **ZEHARKAKO EKINTZAK** SARTZEA, PLANEKO EKINTZAK GARATZEN LAGUNTZEKO (III. Planeko 3 neurriekin bat datoz).
 - **Erakunde arteko lan-mahaia**, familiaren politiketara buruz hitz egiteko (EJ-GV+DDFF+EUDEL)
 - Lehenetsitako ekintzen **garapen- eta ebaluazio-txostena**.

Beharrezkoa da gogora ekartzea Familien Planeko ekintza horiek kokatzeko eta berriz formulatzeko lan horretan aintzat izan direla eta sartu egin direla indarreko Planean aurreikusitako ekintza guztiak eta bakoitza.

**LEHENETSITAKO ARLOEN ARTEKO ERLAZIOA JASOTZEN DUEN ESKEMA,
EKINTZA ESTRATEGIKOAK, PROPOSAMENAK ETA**

OINARRI HARTZEN DITUZTEN III. PLANEKO NEURRIAK

1. ESPARRU ESTRATEGIKOA: FAMILIA-BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA LAN-BIZITZA BATERAGARRI EGITEA

9 EKINTZA ESTRATEGIKOA, III. PLANEKO 23 NEURRI

a. Enplegurako ekintza estrategikoak: sektore pribatua

4 ekintza, III. Planeko 9 neurri oinarri dituztenak

- 58. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 166. neurria (4. ildo estrategikoa)
- 59. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 48. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 89. neurria (2. ildo estrategikoa)
- 51. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 57. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 52. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 89. neurria (2. ildo estrategikoa)

b. Enplegurako ekintza estrategikoak: sektore publikoa

2 ekintza, III. Planeko 6 neurri oinarri dituztenak

- 48. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 16. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 13. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 60. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 61. neurria (1. ildo estrategikoa)
- 146. neurria (4. ildo estrategikoa)

c. Sentsibilizaziorako ekintza estrategikoak

1 ekintza, III. Planeko 4 neurri oinarri dituena

- 86. neurria (2. ildo estrategikoa)
- 79. neurria (2. ildo estrategikoa)
- 88. neurria (2. ildo estrategikoa)
- 87. neurria (2. ildo estrategikoa)

d. Gizarte-aitorpenerako ekintzak

1 ekintza, III. Planeko 1 neurri oinarri duena

- 83. neurria (2. ildo estrategikoa)



2. ESPARRU ESTRATEGIKOA: GURASOTASUN POSITIBOA

2 EKINTZA,
PLANEKO 3 NEURRI

e. Gurasotasun positiboa sustatzeko ekintza estrategikoak

2 ekintza estrategiko, III. Planeko 3 neurri oinarri dituztenak

101. neurria (2. ildo estrategikoa)

141. neurria (4. ildo estrategikoa)

103. neurria (3. ildo estrategikoa)

3. ESPARRU ESTRATEGIKOA: BELAUNALDI ARTEKO SOLIDARITATEA

1 EKINTZA,
PLANEKO 3 NEURRI

f. Belaunaldi arteko solidaritaterako ekintza estrategikoak

1 ekintza estrategiko, III. Planeko 3 neurri oinarri dituztenak

84. neurria (2. ildo estrategikoa)

91. neurria (2. ildo estrategikoa)

92. neurria (2. ildo estrategikoa)

3. ESPARRU ESTRATEGIKOA: LAGUNTZA EKONOMIKOAK

2 EKINTZA,
PLANEKO 3 NEURRI

g. Laguntza ekonomikoekin lotutako ekintza estrategikoak

2 ekintza estrategiko, III. Planeko 3 neurri oinarri dituztenak

37. neurria (1. ildo estrategikoa)

56. neurria (1. ildo estrategikoa)

73. neurria: Hirugarren sektoreko erakundeentzako laguntza ekonomikoak.
(2. ildo estrategikoa)

EKINTZA ESTRATEGIKOAK ESPARRUAREN ARABERA

1. ARLOA. LAN- ETA FAMILIA-BIZITZA BATERAGARRI EGITEA

ENPLEGUAREKIN LOTUTAKO EKINTZA, SEKTORE PRIVATUA

1. Familia- eta lan-bizitza bateragarri egitea sustatzeko taldea sortzea, Enplegu eta Gizarte Politikako sailburuordeek eta Plangintza eta Berrikuntza Enpleguan Zuzendaritzak eta Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak osatutakoa.

Taldearen funtzioak:

Eraginkortasuna (eta ez presentismoa) eta motibazioa oinarri dituen ekoizteko modu berriak sortzeko beharra ulertzea eta barneratzea.
Malgutasunaren (ordutegiak eta espazioa) beharra. Mezu hau eragile ekonomiko guztiei hedatzea: enpresa-erakundeei, enpresaburuei, autonomoei, sindikatuei eta langileei. Bateratzeko neurriak sartzeko hitzarmen kolektiboetan...

III. Planeko neurriak, proposamen honen oinarri gisa erabiltzen direnak:

58. neurria.- Ekimenen garapena familia- eta lan-bizitzaren uztartzea gizarte-elkarrizketako mahaira eta enpresa-ingurunea gaineratzeko. (1. ildo estrategikoa)

166. neurria: malgutasun-esperientziak abian jartzea. Pilotutza 2011. urtean egin zen. Jarraipena egitea eta emaitzak zabaltzea. (4. ildo estrategikoa)

59. neurria, malgutasuna bultzatzeari buruzkoa Confedebarekin eta sindikatuarekin. (1. ildo estrategikoa)

48. neurria, telelana bultzatzeari buruzkoa. Ezin da lanpostu guztietan erabili modalitate hori eta aplikazio-arauak ditu. Lanean eraginkortasun-kultura sartzeko aukera bat da, helburuen arabera lan egitea... (1. ildo estrategikoa)

89. neurria: Enpresei sostengua emateko eta laguntzeko sistemak sortzea, bateratzearekin lotutako gaitan. (2. ildo estrategikoa)

2. Foru-aldundiekin batera lantzea zerga-politiken bidez familia- eta lan-bizitzaren bateratzea ezartzeko aukera.

Talde sustatzaileak neurri zehatzak proposatu beharko dizkio Zerga Koordinaziorako Organoari.

III. Planeko neurriak, proposamen honen oinarri gisa erabiltzen direnak:

51. neurria (1. ildo estrategikoa)

3. EAEko eta Estatutako administrazio arteko organoetan lan egitea, bateratzearen esparruan lan-eskubideak hobetzeko eta zabaltzeko, neurri horiek berekin ekar ditzaketen enplegua sortzeko aukerak planteatuz.

Planteatu beharreko gaiak:

Lanaldia murrizteko aukera semeak edo alabak 12 urte bete dituen arte luzatzea.

Eskolako oporraldietan lan utzialdiak ezartzeko aukera aztertzea, 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeagatik.

Gizarte Segurantzako kotizazio-hobariak %100 handitzeko aukera aztertzea, seme-alabak eta batez ere mendekotasun-egoeran dauden senideak zaintzeagatik hartutako lan utzialdietan eta lanaldi-murriztapenetan.

Kontratazio partzialaren sustapena aztertzea, kotizazioa Gizarte Segurantzara egokituz, lanaldi osoarekiko proportzionala izan dadin.

III. Planeko neurriak, proposamen honen oinarri gisa erabiltzen direnak:

57. neurria Autonomia-erkidegoetako Enplegu eta Gizarte Gaietako arloko batzarren bidez gobernu zentralari zuzendutako ekintza artikulatuak zuzentzea, lan-araudia hobetzeko eta bateratzearen esparruan lan-eskubideak hedatzeko, eta enplegua sortzeko kostua eta aukerak aztertzeko. (1. ildo estrategikoa)

Hala, beste neurri batzuen artean, uztailearen 11ko 20/1997 Legearen, Lan Autonomoaren Estatutuaren, 4.3. artikulua, langile autonomoak bere jarduera profesionala familia-bizitzarekin eta bizitza pertsonalarekin bateragarri egiteko eskubideari buruzkoa, garatzeko eskatuko da. Artikulu hori Gobernuko programa nagusiek jasotzen dute Ekonomia Garapenari eta Lehiakortasunari buruzko atalean: autonomoei, saltoki txikiari eta gizarte-ekonomiari babesa ematea.

4. Uztartzeko Ataria (Concilia+) hedatzea.

Ezagutzea, zer helburu dituen eta zertarako erabil daitekeen jakinaraztea.

III. Planeko neurriak, proposamen honen oinarri gisa erabiltzen direnak:

52. neurria 1. ildo estrategikoa:

89. neurria: Concilia+ atariak enpresei sostengua emateko eta laguntzeko sistema bat izan nahi du, uztartzearekin lotutako gaietan. (2. ildo estrategikoa)

b.- ENPLEGUAREKIN LOTUTAKO EKINTZAK, SEKTORE PRIBATUA

5. Funtzio Publikodun lan-mahaia, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko neurriak sustatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioan malgutasun-neurriak -ordutegia eta espazioa-sustatzea. Telelanaren esperientziaren emaitzak aztertzea eta emaitzak hedatzea - ikaskuntzak.

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak: 48. neurria (1. ildo estrategikoa).

6. Lan-mahaia Hezkuntza Sailarekin, eskolara joateko adina duten seme-alabak dituzten familiek familia-bizitza eta lan-bizitza errazago bateragarri egiteko proposamenak proposatzeko eta lantzeko.

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

16. neurria (1. ildo estrategikoa)

13. neurria: 0-3 urte artekoen ikasgelak sortzea, mapa betetzeko. (1. ildo estrategikoa)

60. neurria:- Familia-bizitza, bizitza pertsonala eta lan-bizitza bateragarri egiteko lagungarriak diren diseinatutako eskolaz kanpoko ekimenak babestea. (1. ildo estrategikoa)

61. neurria:- Eskolako jantokiak, eskaintza eta eskaria egokitzea. (1. ildo estrategikoa)

146. neurria: Haur-ekolek egokitzapen-aldiak malgutzera,

familien beharrekin bat etor

daitezten. Hirukideek publikoki eskatu du neurri hori abian jartzea.

(4. ildo estrategikoa) Lan-mahaiaz gain, eragiten dieten planeko

gainerako neurrien jarraipena egitea eta eskolak

etxeko-lanetan eta zaintzeko eta artatzeko lanetan familiako kide guztien erantzunkidetasuna

nola lantzen duen aztertzea.

c. BATERATZEAREN ALDE EGITEN DUTEN EKINTZA ESPERIMENTALAK

7. Bateratzearen esparruan esperientzia berritzaileak sustatzen jarraitzea, eta esperientzia horien jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

55. neurria (1. ildo estrategikoa)

76. neurria: haurren zaintzaileen profesionaltasun-ziurtagiriak sortzea. (2. ildo estrategikoa)

150. neurria: hezkuntzaren eta gizarte-esparruaren tarteko eremuan bateratzeko zerbitzuak aztertzea. (4. ildo estrategikoa)

d. INFORMAZIO- ETA HEDATZE-EKINTZAK

8. Bateratze erantzunkidetasunari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-programak eta -kanpainak gizartearentzat

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

86. neurria (2. ildo estrategikoa)

79. neurria: gazteentzako kanpainak, helburu hauekin: martxoaren 19an

"berdintasunezko aita" eguna ospatzeko proposamen berria. (2. ildo estrategikoa)

88. neurria: bateratzearen onurak hedatzeko kanpaina. (2. ildo estrategikoa)

87. neurria: malgutasunarekin lotutako ekitaldiak, kanpainak... (2. ildo estrategikoa)

e. GIZARTE-ONSPENERAKO EKINTZAK

9. Familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko malgutasun-neurriak sustatzen dituzten enpresak onesteko moduak ezartzea.

Tokiko-erkidegoko ekimen berritzailearen saria, bateratzearen eta erantzunkidetasunaren esparruan.

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

83. neurria *“Bi urteroko sari eta onspen publikoak antolatzea esperientzia eta praktika ereduak edo berritzaileentzat, betiere familiei laguntzeko modukotzat kalifikatzen badira.”*

(2. ildo estrategikoa)

2. ARLOA. GURASOTASUN POSITIBOA

10. Gurasotasun positiboaren garapena sustatuko duten programen eta zerbitzuen eskaintza. (Profesionalentzako ikastaroak, gurasotasun positiboari buruzko web-orriak seme-alabadun familiak artatzen dituzten profesionalentzat, profesionalentzako topaketak, laguntza ekonomikoa intereseko programei...)

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

101. neurria *“Gurasotasun positiboko programak garatzea, abileziak eta gaitasunak garatzeko:*

1.- EAEn garatzen diren gurasotasun positiboko ekimenak identifikatzea eta ebaluatzea 2011n.”

“2.- gurasotasun positiboko proposamen berriak egitea ebidentzia zientifikoan oinarritutako guraso-abileziak eta -gaitasunak garatzeko, 2012an.”

“3.- gurasotasun positiboko baliabide-banku bat abiaraztea, agente zientifikoekin koordinatuta egingo da eta eremu horretan lan egiten duten profesionalen eskura jarriko da, 2013an.”

“4.- programa egitea eta gurasotasun positiboko programak hedatzea 2013an eta 2014an.”

(2. ildo estrategikoa)

141. neurria: prebentzioko eta hezkuntzako esku-hartzeko baliabideen bankua administrazioetako

jarduketekin eta profesionaleri eta familiei zuzendutakoa. (4. ildo estrategikoa)

11. Gurasoak prestatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagut ditzaten (motak, arriskuak eta abar), arraila digitala saihesteko.

Praktika egokien programak identifikatzea eta ebaluatzea familiei IKTei eta haien arriskuei buruzko prestakuntzak ematean, Hirugarren Sektorearentzako laguntzen eskaeren artean.

- Zehaztea zer programak duten helburu horrekin erlazioa gurasotasun positiboko mapan aztertutakoen artean.
- Adingabeak Interneten babesteko erakunde publikoen eta pribatuen sarea.
- Gurasoen elkarteetan, gurasoen eskoletan, gizarte-laguntzaileen artean, Hezkuntzak hedatzeko materialak garatzea. Kontsumok gai horren inguruko materialak ditu. Ikustea eta Zeuk Esan eta Gurasoenarekin estekatzea.

- Suspergintzaren (EDE) programari jarraipena egitea, gazteak "prestatzaile izateko izateko" IKTen erabilera seguruen inguruan, gerora familiei Internet ezagutzen lagun diezaieten.

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

103. neurria: "Familiei zuzendutako informazioaren eta komunikazioen teknologien (IKTak) inguruan sensibilizatzeko eta prebenitzeko programak sustatzea, arraila digitalaren fenomenoak saihesteko, eta sare sozialek eta Internetek berekin ekar ditzaketan arriskuak saihesteko." (3. ildo estrategikoa)

3. ARLOA. BELAUNALDI ARTEKO SOLIDARITATEA

12. Aitona-amonek familiei, oro har, eta ilobei, batez ere, egiten dieten ekarpenari balioa ematea. Alderdi hori diskurtso politikoetan aintzat hartzea.

- Familiei zenbaterainoko babesa eta segurtasuna ematen dieten azpimarratzea, bai laguntza materiala zailtasun ekonomikoko egoeretan, bai laguntza emozionala banantzeko edo dibortzioko egoeretan, non haurrentzat erreferentziatzko irudi bihurtzen diren.
- Aitona-amonek gurasoekin batera hezten dituzte haurrak, eta hala, beren seme-alabei lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko aukera ematen diete. Ilobak hezteko eta bi alderdientzat aberasgarriak izango diren familia-harremanak garatzeko tresnen beharra.

Proposamenak:

- Aitona-amonen eskola, Coaching...
- Familiaren Biltzar bat antolatzea, belaunaldien arteko solidaritatea ardatzetako bat izango duena.
- Ikastetxeetako ikasgeletan, hirugarren adineko ikasgeletan, alargunen eta erretirodunen elkarteetan gogoeta hori sartzea.
- Aitona-amonen bizitzaren lekukotza eta balioak Hezkuntzaren sisteman nola sar daitekeen aztertzea.

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

84. neurria "Familiek bizi duten belaunaldien arteko errealitatea sustatzea, zainketa, eta historiaren eta balioen transmisioa ahalbideratzen duena." (2. ildo estrategikoa)

91. neurria

"Material didaktikoak egitea eta hedatzea. Material horietan agerian jarri behar da zer-nolako zeregina

duten adineko pertsonen familia- eta gizarte-esparruan ongizatea sortzen."

(2. ildo estrategikoa)

92. neurria, "Herritarren partaidetza-foroak sortzea, non adineko pertsonen ongizatea sortzen eta mantentzen egindako ekarpena aintzat hartuko den, eguneroko bizitza eta familiako bizitza errazten egindako ekarpenak azpimarratuz". (2. ildo estrategikoa)

4. ARLOA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

13. Jaiotzagatiko laguntzen, eta familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko laguntzen sendotzea eta iraunkortasuna.

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

37. eta 56. neurriak (1. ildo estrategikoa)

14. Hirugarren Sektoreko erakundeei diruz lagundutako proiektuen bidez praktika egokiak aztertzea.

(III. Planeko neurri batzuk laguntzen deialdi horren bidez gara daitezke)

Gizarteak naturaltasunez sortzen dituen ideien edo proiektuen berri izatea.

Helburua da koherentzia ematea babes guztiei, sinergiak sortzea.

Proposamena da Familia Zuzendaritzak familiaren esparruan garatzen diren proiektu guztien berri izatea eta jardunaldi baten bidez praktika egokiak hedatzea.

Oinarritzat hartzen dituen Planeko neurriak:

73. neurria: Hirugarren sektoreko erakundeentzako laguntza ekonomikoak.
(2. ildo estrategikoa)

LEHENETSITAKO NEURRIAK GARATZEKO SARTU DIREN ZEHARKAKO EKINTZAK

15. Erakundeen arteko lan-mahaia: mahai tekniko-politikoa Eusko Jaurlaritzako hainbat sailen, foru-aldundien eta udalen artean.

III. Planeko neurriak, proposamen honen oinarri gisa erabiltzen direnak:

113., 119. eta 120. neurriak (4. ildo estrategikoa)

16. Lehenetsitako ekintzen eta oro har Plan osoaren garapen-txostena